

ZEZEN LARRUA (iharraipena)

S. Espriu-ren *La pell de brau*
(Otsalarrek euskaratua)

XIII Gaueko haizearen igurtzia hartu dugu aurpegian, zelatan dagoen pizti gaiztoarena bezala, eta hatzaparkaderi zai itzalean ibiliko ditugu laino zerrendaz, azken arrabaleko karrikara iritsi arte, zeinetan herioak dendatxoa idekitzen duen. Bacco Ernesta, non donna di mal affare. Iritsiaz Guglie zubitik eta gelatxo alogatua hartzen du emeki jotako eragingailuz entzuteko behatz ikaratiekin denboraz eta oroitzapenez. Erretratuak izango dira non-nahi, paperezko lora sortaz sukalde usai sendoa, veneziar urrutiko kanalaren lurrunez, eta salneurritz tokatzen zaizkigu xingola harizkak oheraino. Eskilara igaroaz —hiru maila lodi—, badakigu atea eta haizeari eta argiari itxitako gela haren hoztasuna aurkituko genuela, abandonaturik utzi zituztenak, behar bada betiko, iltzeak eta estrabeak alanbrez, aski nekaturiko maitasuna uezaba tristearena eta neskamea udaran garbiketaz, makulu bat, haur ihauteri jantziak sari seguruaren dantzan, esmaltedun palangana urratuak, markuak, kobrezko suontzi zahar bat.

XIV Badakigu gordeta dagoela, gaineko sabai harrigarri batean, erresuma dena amaraun lodi eta hotzarena, hiru ankadun kobrezko suontzi zahar bat, aintzinako suontzi zahar erdoiz betea orain hartzea poliki-poliki, baina atsedetik gabe egunen batean

zoritarreko negu kupidagarri hau Sepharad-en.
Gaur zartaginean astiro egosten da,
seme gosetien aho zabalen aurrez aurre,
taupaden eta itsasoko ekaitzen
erdian hartu genuen xehekeria urritua.
Arrainak hiru direnez, suontziaren oinak bezala
eta bakoitzari bere izenez deitzen diegu
—letra tipi eta klaru batean idatzi duguna—
justizia, eta zintzotasuna, eta lana.
Aharrausiz dauden gazteak gomiatu ditut mahaira
eta agintez erakutsi genien janari eskasia,
horrela gose zerbait baretu dezaten,
eta piztu dezatela gero, kikildurik beldurrezko eskuekin,
argira eta haizera idekita gela ahantzia,
lehen eta betiko ikatzak hiru oinako suontzian.

XV Hitzik garbienetik
itxaropena,
bizitza egin behar da
Sepharad-go negua
betiko garaituko duen sutatik.

Baina laster
ametsetik iratzartuko naiz:
baita ere gurekin dago,
presondegi hizoztuan,
eguzki-txoria.

Orain badaroate
presoa tormenturuntza.
Nola begiratzen dugu
gailurretako argia, herioak
lurruneztatu dituen begi geldietan!

XVI Luzetzen ziren hegoak eguzki-txoriarenak,
etxe-aintzinetik goruntz jasotzen dute.
Goi-goian iltzatu dute, puntak errematxatuz.
Mailu hotsen durundaz, hurbil,
borrero zerbitzarien behatzak abandonaturik
hesi gainean finko, geldi. Eta berehala

jauregi handia barnean daroaten begiak
argi pentsamenak lurruneztatuz
herio bare tipia. Eta gertatuko da
inperial sakrifikatze ikaragarria
anitz urtez menperaturik eduki dituan
mendi, zero, Sepharad-en ametsak,
etxeko gapoi traukilaren martirioa
urte-azkeneko jairako
erneguz hiltzen den saguzaharraren minez.

XVII Yehudi, anitz urtean
ez ur gardenaren egarririk
ez okela pixkat
frogatzen ez duena,
gosea praktikatzen duen
Kaperau
digeritzen bere gosaria
eta lurruna zabaltzen
ardo txarraren ondakinetarik,
aztertzen zituelarik
karridak eta bazterrak,
goitik behera,
pozik elikatuz
hotza, opari sana
eta ugaria erdietsi duen
guztia doarik
hiriko
gozozalerik pobreenak.
Kasik plaza nagusira
iristen zelarik,
bat-batean jendetzak
bidea galerazten die.
Martiriora zeramaten
eguzki-txoria:
irain honen
xehetasunak kontatuak dira.
Inozoak begiratzen du
eihar eta hizozturik
ez bakarrik gosez eta hotzez,
izuturik baizik,
zeren zain guti du
eta arrain odol gabea da.

Yehudi-k barnean somatzen du
kolpe handi bat,
asken ardo koparen
zarata lorrina, gaitz
guzien botika.
Ardorik ez badago, zelan edan,
zelan konponduko da?
Edaten ez badu, zelan bizi,
nork salbatuko du?
Bat-batean erabakiko du
xoria begiratzen duen artean
iraganean
lagunduz.
Zuhaitzean igotzen da
goi-goiraino.
Adarrik gorenean
gogor lotu du
espartzuzko soka
hamabi arrebeteko
herri santuaren
kupida oroitzez.
Burua lazotik pasatuz
eta joaten utziz.
Kulunkaz gorputza bultzadagatik,
geldituko da!
Mihia erakutsiz
hainbeste asetuz
gure ondoan
zijoanean bidez
hartutako hautsez,
bakezko gizonak,
ulertzera ahalegintzen garenok
otoitz kanta
gitarradun itsuarena,
behar bada anai
Yehudi-rena, jostun zaharra
Sepharad-eko.